empleados en cruzar las montañas que a ella conducen. Este buen Conde [Peñaflorida] ha transformado a esta gente en amantes de la música. Ahora traducen y ponen entre ellos en escena óperas italianas, desempeñando muy tolerablemente todos los papeles, tanto en el escenario como en la orquesta». (40)

Bi urte beranduagokoa dugu beste dato bat. 1781. urtean nahiko ezaguna den idazti bat dela medio (41), badakigu Peñafloridako Konteak Tomas de Iriarteri idatzi ziola *La Espigadera* zartzuela eskatuz. Ez dago garbi no-rentzat zen, hots, Elkarte, Seminarioa edo berarentzat, Iriarteak erantzunean zera bait dio:

«celebraré que logre Vm. el fin de que su Tertulia se divierta con la celebración de la consabida zarzuela».

Badirudi Peñafloridaren ekintza pribatuetarako izango zela pentsatu beharko dugula, ziurtasun handirik gabe, hala ere. Dena dela, Elkarte barruan ofizialki antzerki musikala ahuldu bazen ere, argi dago bertako kideak ekiteari jarraitu zitzaizkiola.

## 5. BERGARAKO MINTEGIA. MUSIKA ETA HEZKUNTZA

1755 urtean Bergarako Mintegiak bere atek zabaltzen ditu ofizialki. Ez du honek esan nahi Euskal Herriko Adiskideak hezkuntzaz lehen arduratu ez zirenik.

### 5.1. Musika gazteen hezkuntzan Bergarako Mintegia sortu baino lehen

Adiskideen Elkartearen haserako urteetan agertu zen jadanik Euskal Herriko gazteen hezkuntzaren arazoa. Honela adierazten digute 1777 urteko Extraktoek:

«Desde estas juntas [1767 urtear Markinan gertatutakoak] se empezó a tomar el objeto de la educación de los jóvenes por uno de los mas esenciales de la Sociedad: y con la casualidad de haberse juntado en Vergara el número de siete Alumnos, se estableció entre los Amigos de Guipuzcoa una escuela particular, en donde alternando por horas, daban los mismos socios lecciones de aritmética, álgebra, geometría, geografía, historia, lenguas latina y francesa, y habilidades de música, bayle y florete». (42)

40.- SANTOYO, Julio César. «Un elogio ingles del Conde de Peñaflorida (1779)». *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* delakoan. San Sebastián. XXXV, 1, 2, 3 eta 4 koad., 1980, 238 or.

41.- URQUIJO, Julio de. *Menéndez Pelayo...*, op.cit., 108 or. Geroago PALACIOS, E. jaunak ere argitaratzen du «Actividad literaria del Conde de Peñaflorida. «El Carnaval», *Boletín de la Institucion «Sancho el Sabio»* delakoan. Gazteiz, XVIII, 1974, 522-523 or.

42.- *Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País en la ciudad de Vitoria por setiembre de 1777.* (Vitoria: Tomás de Robles, /s.a./), XIV.



Jakina da garaiko hezkuntzan normala zela hiru «trebetasun» horiek erakustea. Ziur gaude Kontea tartean izanik musikak leku berezi bat izango zuela eta horixe da hurrengo datook adierazten digutena.

## 5.2. Peñafloidako Kontea eta bere seme-alaben hezkuntza musikala

Honetan ere datoak oso urriak dira. Baditugu, hala ere, gai honez Konteak zituen kezka adierazten digutenak. 1769ko abenduan eta Ramon Maria bere semearen bidaia gaitzat zuelarik, Cluvier abateari Konteak idazten dio, semeak ikasi behar dituen gaiak adieraziz («Phisica, Historia Natural y Matemáticas»):

«Ultimamente deseo que continue en tomar leccion de violonchelo de que tiene ya algunos principios: y me parece que también le convendrá volver por algunos meses a tomar leccion de baile aunque no es mi intención el que salga sobresaliente en habilidad» (43).

Badirudi gehiegi jotzen ez bazuen ere zerbait saiatzen zela, 1771 urteko martxoan Paristik idazten bait dio Ramonek aitari, besteak beste hau esanez:

«Pasado mañana boi a ponerme de luto con el biolón aunque no tanto como quisiera por la rason que mis cursos no me permiten; pero cuando me desenbarase de ellos espero dar buenas sanpadas...» (44).

Eta alabez, zerbait esan al dezakegu? Deus gutxi. Gai honez Kontea noizbat arduratu zela dirudi, soslaiz izan bazen ere. 1781. urtean hezkuntzaz irakurtzen duen hitzaldian, Errusiako Katalinak eraikitako «Comunidad de señoritas» gaia duelarik eta ikusgaiez aritzean bi hauek aipatzen ditu: «6.º el Baile: 7.º la Musica Vocal e Instrumental». Eta honez gainera zera dio:

«En ciertos dias festivos tendran visita ô Asamblea general con todas las formalidades que en la vida civil para este genero de concurrencias: y en ella habrá Concierto ô Academia de Musica en que las señoritas mostraran su habilidad...» (45).

Baina Kontearen alabei konkretuki dagokionez hau bakarrik esan dezakegu: 1764. urtean antzerki emanaldiak ematen direnean, aipaturik gelditu den bezala, hau irakurtzen dugu:

«Los siete dias siguientes tuvimos una bella orquesta [...] y cantaron varias arias y sainetes las tres hijas del Conde».

eta aurrerago *La Clemencia de Tito* obraz ari denean:

«Las actrices fueron doña Maria Josepha y doña Ignacia de Munive» (46).

Beraz, honen ondorioz, pentsa dezakegu alabek ere hezkuntza musikala izan zutela.

43.- URQUIJO, Julio de. *Los Amigos del País...*, op.cit., 43 or.

44.- *Colección de Documentos inéditos...*, op.cit., 44 or.

45.- APA/FP, XIX lib. 34

46.- URQUIJO, Julio de. *Menéndez Pelayo ...* op.cit., 44 or.

### 5.3. Peñaflorida eta musika Bergarako Mintegian

Gai honez dauden dato urriak, honetan ere Peñafloridaren garrantzia azpimarratzeko nahikoak direla pentsatzen dugu. 1778. urtean Mintegiko Lehendakaritza berari dagokionean:

«Exacto el primero al toque de la campana, asistía á todos los actos de la comunidad: promueve los juegos y diversiones de los caballeros, como quien conoce bien los buenos efectos del ejercicio, la disipacion, el honesto recreo, y la alegria en la juventud. Amando la musica con tanta predilección, no podia menos de fomentar este arte con mucho empeño: asi lo hacia. Inspectores, maestros, Seminaristas, camareros, y hasta los barrenderos hacian su papel en los conciertos que se daban dos veces á la semana en un gran salon. Las noches de los domingos, y las tardes de los jueves se destinaban á esta dulce recreation: llenaban justamente la mayor parte del tiempo las sinfonias y quartetos de Hayden: habia algunos solos de violin y de flautas, y tal qual aria y duo muy bien executados. Por ningun motivo faltaba nuestro Conde á esta distribucion, haciendo veces de maestro de capilla, y siempre ocupado con el violin, la viola ó el canto» (47).

Benetako garrantzia du Urkixoren Liburutegian aurkitzen den «Estatutos de la Escuela de Música» izeneko eskuizkribu batek. Bergarako Mintegiari dago egokitua eta ez dago garbi oraindik aurrera eraman zen ala ez. Teoria hutsa besterik ez bazen ere, Euskal Herrian gutxienez gazteen musika-hezkuntza serioski eta araupeturik planteatzen den lehenengo aldia da, eta eskuizkribu hau Peñafloridari leporatzen zaio (48).

Kontearen ardurak Mintegiko gaiez, bere azken egunetaraino iraun zuen, *Elogio-ak* adierazten digunez:

«Por este mismo tiempo [1785ko urtarrilak 13an hil zan kontea] en que nuestro Conde trabajaba el bosquejo de un drama, ú opera comica intitulada *La Paz*, y el proyecto de otros dramas inocentes, para la diversion y ejercicio de los jovenes, y en particular para el uso del seminario patriótico, tuvo la fatal precision de pasar á Logroño, donde contrajo unas tercianas tan malignas y reveldes, que no se pudo encontrar remedio contra ellas» (49).

## 6. MUNIBE INTERPRETATZAILE

Bati baino gehiagori zirtzila irudituko zaio gai hau, behar bada, baina badu bere garrantzia. Konteak egindako obrak aztertzerakoan alderdi bat baino gehiago argi dezaken gaia dugu hau.

---

47.- «Elogio de don Xavier...», op.cit., 60-61 or.

48.- *Borradores de la Escuela de Musica*. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Liburutegia. Urquijo Fonda. Ms. 13.329. Fitxak honela dio: «ms. que pertenecio al Conde de Peñaflorida». 8. kuartilla ditu.

49.- «Elogio de don Xavier...», op.cit., 62-63 or.

Bi aspektu bereiz ditzakegu: Konteak interpretaturiko erreperitorioa eta interpretatzeko bitartekoa, edo beste era batean esanda, zer ahots zuen eta nolako musikagailuen interpretea zen. Oraingoan bigarren gaia ukitzeari mugatuko gatazka.

Ez da erraz Kontearen ahotsa nolakoa zen jakitea. Honetaz Leandro Silvanek idazten duenean zera dio:

«Era por entonces [una vez casado] el Conde un hombre de talla corriente pero de cuerpo voluminoso y con un peso que rebasaba el centenar de kilos; poseía una voz atemorada y pese a su corpulencia, se movía con gracia, acusando en sus finos modales el influjo de la educación francesa» (50).

Badaiteke honela izatea, 1756. urtean Arantzazun abesten duen José Plàren *Stabat Mater* obra, tiple baten tesiturarako idatzia dagoenez (Do Igo lerroan), uler daiteke tenore batek abestea.

Instrumentoei dagokionez esana dago Toulousen bibolina jotzen ikasi zuela. Bergarako Mintegiaz *Elogio-an* mintzo denean ere honela azaltzen digu: «siempre ocupado con el violin, la viola ó el canto» eta badu garrantzirik datu honek (1778koa da). Biola berandu sartzen da Espainia osoan eta interesgarria da jakitea Elkartean ezaguna eta erabilia noski, izan zela.

Konteak bibolina jotzen zuela adierazten diguten beste dato batzuk ere badaude. Honela bere Etxazainak kontuetan adierazten duenez:

1756, urriak, 19

«Yt ocho reales y diez y seis maravedís que en diez y nueve del mismo pague por una docena de primas de violin que por orden del Señor Conde compre a un Quinquillero» (51).

1759, abuztuak, 1

«Ytt quatro reales que este mismo dia pague por quatro primas de violin que compre en Azpeitia» (52).

1759, abuztuak, 15

«Ytt tres reales que el dia quince pague por tres segundas de Biolin» (53).

Beste batean musikagailu desberdin-bat azaltzen da; ezin jakin ordea Kontea edo bere familiako besteren bat ote zen kitarra jolea. Dena dela honela dio:

1757, azaroak, 28

«Ytt. diez y ocho reales importe de un mazo de cuerdas de guitarra remitido en 28 del mismo» (54).

---

50. - SILVAN, Leandro. *La vida y la obra..* , op.cit., 14 or.

51.- Peñafloredako Konteen Artxiboa, CIII kaja, 2348 leg.

52. - Ibidem.

53. - Ibidem.

54. - Ibidem.

## 7. MUNIBE MUSIKAGILE

Sarrera moduan esan dezakegu haxe dugula gairik zailena ikerlariarentzat. Behar bada egileak Euskal Herrian duen garrantziagatik, Kontearen obra musikala nahaste eta problemaz inguratutik iritsi zaigu. Eta guzti honetan nolabaiteko argia bilatzeko, lanaren zatiketa egiteari ezinbestekoa deritzogu.

### 7.1. Musika erlijiosoa

Hurrengo kapituluan ikusiko dugun obren zerrendan, hauetako hiru soil-soilik iritsi zaizkigu XVIII. mendeko kopian. Hauek dira: Kantu-launeko bi mezak eta «Duo al nacimiento». Beste lanekin zer gertatzen da? XIX. eta mende honetako kopietan iritsi zaizkigula eta zenbait kasutan, gehiengotan, nolabaiteko garbiketa, orrazketa eta moldaketez apainduak. Honek berarekin dakar, zoritxarrez, kritika edo azterketa lanak egiteko baliagarriak ez izatea, ez bait dezakegu jakin nondik-nora den Kontearena eta zer bestek erantsi edo aldatua. Eta gure iritziz hau gertatzen da bai Miserere, bai Aita Gurea, Via Crucis, Jesu edo Cantico de Zacarias-en kasuetan. Partitura batzuk, Jesu adibidez, badaiteke XVIII mendekoa izatea eta badu Kontearen Pasioekin zerikusirik, baina Antzuolako kopian ez du inongo egileren izenik jartzen eta Bergarakoan, katalogo batean ezik, ez zaio aittasunik leporatzen. Guzti honetaz ez dugu bereak ez zirenik esan nahi, hasierakoa behinik behin (55), urteak bereak bezala gorde baditu eta herri

---

55.- Badira orain baino lehen obra honetaz aritu direnak. Besteak beste Aita Donostiak Kontearen zortzikoaz idatzitako artikuluan honela dio:

«Aparte de estas «misas, arietas, zorzicos y contrapases» de que nos habla el «Elogio» citado, la tradicion popular de Azcoitia atribuye al Conde de Peñaflovida varias composiciones que en dicha villa se cantan: v.gr. un *Aita Gurea eta Agur Maria*, a coro popular y 4 voces mixtas destinada al Rosario (de que tengo copia) y un *Benedictus* que he tenido ocasion de oir en dicha villa en unos funerales celebrados alli en 1927» (DONOSTIA, J.A. de. *Notas de musicologia vasca: Dos Zorzicos del siglo XVIII en 5/8*. San Sebastián: [Sociedad de Estudios Vascos], 1928, 5 or.).

Iñaki Zumaldek ere hitzegiten du «Aita gurea»-z, «La música de los Caballeritos de Azcoitia» (*La Voz de España*, 1964-I-23) artikuluan.

Yrizar Jaunak, Agustin Cardaverazen *Amorezco eta Dolorezco Jesu Christores Pausuac. Calvarioco Estazioak...* delakoaz idazterakoan zera dio:

«Y es a estas cuartetos del Padre Cardaveraz alas que puso emocionada música el Conde de Peñaflovida. No dubo que bajo su batuta aprendería el pueblo azcoitiano a cantarlas [...] La fecha de esta composición musical debe ser anterior a 1768 (dato de Urquijo) en que *levantó* su casa de Insausti para trasladarse a Vergara a organizar la nueva «Escuela Patriótica». Desde entonces y todos los años, el día de Todos los Santos, viejos y jóvenes, aldeanos y señores, suben con devoción hasta el Campo-santo encaramado en las estribaciones del Izarraitz, cantando estos calvarios compuestos por un venerable Padre jesuíta y el primero de los Caballeritos de Azcoitia» (YRIZAR, Joaquín de. «El Padre Cardaveraz y el Conde de Peñaflovida». *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* delakoan. San Sebastian, IV, lgo. koad., 1948, 113-115 or.

desberdinetan gainera, zerbaitengatik izango da. Baina iritzi kritiko bat lortzeko hori ez da nahikoa. Horretarako, beharrezkoa da XVIII. mendeko elementuak zein diren jakitea. Horixe da adibidez *Irten ezazu* kantuari gertatzen dena. Nahiz eta kopia desberdin eta era desberdinetan ezagutu, nire ustez goiko doinua XVIII. mendekotzaz jo daiteke (56). Obra bat geratzen zaigu aipatu gabe, «Pasos de la pasion...» delakoa. Nire ustez ez dago dudarik Peñafloredarena denik, nahiz eta kopiak garaikoak ez izan. Leku desberdinetan azaldu zaizkigu, eta guztietan ia aldaerarik gabe (57).

Ziurtzat jotzen ditugun bost obra horietatik (2 meza, «Duo al nacimiento», *Irten ezazu* eta *Pasioak*) zer ondorio atera dezakegu?

Lehenengoa, musika erlijiosoaren barruan Konteak estilo desberdinak ukitu zituela: kantu launa, kantu figuratua launakoarekin txandakaturaz, eta bere garaiko italiar estiloa, azken estilo honetan koka ditzakegu *Irten ezazu* eta *Duo-a*. Eta harrigarria da bi estiloak erabiltzea, orain arte dakigunez behintzat, ez da oso normala garaiko musikagileen artean.

Esan ohi da bere kantu launeko meza komentatzean, alemaniar korala ezagutzen zuela Peñafloredak, gehiegizko iruditzen zaigu hau. Ez dut uste *Pasioak* bezain armonia bertikala duten obra idatzien iturriak Alemaniako elizako musikan dagoenik, baizik eta bertako tradizioan, edo-ta zabalkiago ikusiz espainiar musikan. Eta kantu launa bera ez da garaiko beste kantu launen desberdina, kantu gregorianoaren bilakaeraren barnean dago eta garaiko beste kantu launen behar eta erari atxikitzen zaizkio. *In honorem Sancti Spiritus* izeneko (58) bere kantu launeko meza ongi aski aztertua izan da Juan Urteagatik, honela laburtuz:

«en esta Misa tiene [el canto llano] caracteres muy estimables y muy de acuerdo con lo que juzgamos que debe ser la música eclesiástica» (59).

Beste meza, 6. tonokoa, aurrenekoa baino kaskarxeagoa dela esango genuke. Ez dira hain esaldi musikal handiak ikusten, eta *Et incarnatus* bikotea ere ez da bestea bezain sinple eta eraginkorra.

Estilo honen antzeko musika, estilo garratzeko esan genezakeena, *Pasioak* ditugu. Hauek dira behar bada Peñafloredaren obra polifonikorik lortuena bere aitatasuna ziurtzat jotzen dugun artean noski. Hiru ahotsetara

---

56.- «*Irten ezazu*» kantatik iritsi zaizkigun kopia guztiek inongo dudarik gabe Peñafloreda adierazten dute egiletzat. Bi kasutan, ahots bakarrarentzat dago idatzia, eta bestalde ahots horren linea melodikoa ongi aski izan daiteke XVIII g. mendekoa.

57.- Badugu halere dudaren bat edo beste. Arantzazuko kopian adibidez arraroa da gorde diren kopiak Alto 1 eta Bajo 1 izatea, eta Alto 1 beste kopiekin konparaturaz, Voz 1 ekin bat izatea. Bestalde Uria familiaren ohitura da *Pasio* hauek 5 ahotsetara zirela sinistea. Egia esan, nik, kopiak ikusi ondoren eta musika aztertuz, hiru ahotsetarako eginak direla pentsatuko nuke. Aipatu beharra dago ere Uria etxean gordetzen den «*Voz 2.<sup>a</sup>*» ren kopian 1761 data azaltzen dala ezker aldean.

58.- Behar bada Azkoitiako *Sancti Spiritus* ermitarekin zer ikusia duena.

59.- URTEAGA, Juan. «Una misa del Conde de Peñafloreda», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* delakoan. San Sebastián, II, lgo. koad., 1946, 5 or.

eginak, ia beti homoritmikoak, sinpleki eta elementu gutxiez espresibitate osoa lortzen du. Egia da akatsak eta esku trebe baten hutsak soma daitezkeela, baina halere obrak bere eginkizuna osorik betetzen duela uste dugu.

Argi dago beste munduko hegalaldi melodikorik ez modulazio aberatsik ez dagoela. Baina Konteak musika hau baino landuagoa egiten zekiela badakigu. Behar bada, lau Pasio hauetan lortu nahi zuena horixe zen, doitasuna eta seriotasuna.

Beste bi obrak arront desberdinak dira, «Duo»-a batez ere. Orain arte ezagutzen ditugun bere garaiko obrekin zirikusi askoz ere handiagoa du. Dena aldatzen da. Doinuak askoz zabalagoak, tesitura handiagokoak dira; abeslariak benetan trebeak izan behar dute. Eta bikoteak ez dira denbora guztian isoritmikoa, badago nolabaiteko kontrapuntoa. Zoritxarrez ahozko particek besterik ez zaizkigu geratu, eta ezin jakin dezakegu nolako laguntza izango zuen, bere aberastasuna edo pobretasun norainokoa izango ote zen jakin gabe.

*Irtean ezazu*, lehen aipatu dugun bezala, doinua da XVIII. mendekotzat jotzen dugun bakarra. Eta honetaz ezer gutxi dugu esatekorik, doinu maitagarria dela benetan, gaurregun Azkoitian herrikoia bihurtu dena. Doinu bat baino gehiagoz dugu, hala ere, *Irten ezazu*. Urtero, eta dirudienez XVIII gizalditik aurrera, Kandelari egunaz meza berezi bat ospatzen da Azkoitiako elizan, eta bertan egiten den zeremoniaren erdigunea dugu abesti hau. Honela azaltzen du Iñaki Zumalde jaunak:

«...la imagen data del XVIII, De este siglo debe ser la ceremonia de la ofrenda. Con toda verosimilitud, fue obra del Conde de Peñafloreda. No se sabe si fue una copia de algo visto en sus viajes o, por el contrario, creación suya. La música que acompaña a la ceremonia y le confiere un realce extraordinario, es del propio Conde.

Al llegar al ofertorio, dos niños vestidos de ángeles portando una tarta de tres pisos uno, y el otro, las palomas, preceden ala Virgen en la procesión que recorre parte del templo hasta situarse en el altar mayor, donde hacen la ofrenda a los celebrantes. En el transcurso de la procesión el coro interpreta el «Irten ezazu» [...] en la actualidad [1964] únicamente se cantan dos estrofas de las cinco que primitivamente contaba. Antiguamente la procesión recorría toda la iglesia y daba tiempo a cantar toda la composición...» (60).

Argi gelditzen dena, musika erlijiosoan ere, Konteak, zeremoniaren sortzailea izan ala ez, nolabaiteko eginkizun dramatiko kutsua zutenetan parte hartzen zuela da.

## 7.2. Gavon sariac

«Gavon - sariac / edo / aurtengo gabonetan / Azcoitiaco eleiza nagusian can/tatuko diran gabon - cantac edo / otsaldiac / Puer natus est nobis, / venite adoremus. / Azcoitin / Misericordian MDCCLXII».

60.- ZUMALDE, Ignacio. «El «irten ezazu azcoitiano», *La Voz de España* delakoan, San Sebastián, 1964 urteko otsailak 18an.

Obra nahiko ezaguna da, orain arte lau argitaraldi ezagutu bait ditu (61).

Mila istilu izan dira obra honen egilea nor zen jakinnahi izan denean. Eta badirudi, oraindik ere batzuk zalantzan jartzen dutela egilea Peñafloreda izan zenik, nahiz eta J.I. Tellechearen idaztieki ongi argitua utzia gaia. (62).

Letrari dagokionez, ez dugu ezer eranstekorik orain arte obra honetaz esan denari. Laburpen eta iritzi kritiko bezala hona hemen Mitxelena jaunak zer dioen:

«Son una inspirada paráfrasis en jugoso lenguaje de la égloga cuarta de Virgilio, de un bucolismo encantador» (63).

eta Juan San Martín jaunak:

«Teatro antzera egindako obra honek, ikasi batek egindako kanta herrikoiak ditu. Estilo jolaskorra, baina batez ere erudiziozkoa, jakintzaz hornitua, eta hau da hain zuzen ilustrazio garaiko agergarrikerik bereziarena.

Bertan, lehen aldiz, kontzeptu berriak agertzen dira gure literaturan. Ez du Barrutiaren bezalako herri teatro antzikerik. Behar bada jenero bereko beste era bat da» (64).

Musikari dagokionez, ezin ezer esan zoritxarrez, galduta bait dago. Zer obra mota ziren gutxi gora behera jakin dezakegu. *Gavon sariac* hiru «otsaldi» edo «kanta» dira. Lehenengoa «Tonadillea» eta «segidillak» osatzen dute, azken hauek nahiko luzeak dira. Ez da pertsonairik azaltzen. «Bigarren otsaldia» aria bat da eta garaian hain ohizkoa zen Idea, pertsonai mitologiko edo Bertuteraren bat azaltzea, hemengoan «Caridadearen edo egiazko amorioaren auan» abesten da. Sarrera gisa edo «Introducción» deritzan bertso batzuen ondoren «Errezitatua» eta «Ariachoa» doa. Azkenez, hiru-

61.- Lehenengoa, bere garaian, 1762 urtean eta berak dioenez, Azkoitian. Bigarrena *Euskal-Erria* aldizkarian (San Sebastián, XX t., 1889, 54-56; 73-75; 112-115; 140-141; 170-176; 200-201). Hirugarrena, On Manuel Lekuonaren eskutik, «Gabon Kantak», *Egan*, 1956, 33-34 or., eta azkena Gabriel Arestiren edizioan, *Teatro zaarra* (Donostia: Auspoa, 1965), 47-77 or.

62.- Ikus TELLECHEA, J. Ignacio. ««Gabon-kantak» de Guernika (1764). Un documental del euskera vizcaino del siglo XVIII». *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* delakoan. San Sebastián, XXII, 2g. koad., 1966, 157-171 or., eta TELLECHEA, J. Ignacio. *Papeles viejos* (San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1968), 193-196 or.

Alde berean, badago garaiko beste frogatik: 1775 urteko Extraktoetan, 147 orrian «Lista de los Libros y efectos regalados á la Sociedad desde Diciembre de 1774», eta bertan «Buenas letras» atalaren barruan:

«El Borracho burlado, ópera cómica en castellano y bascuence, por un caballero guipuzcoano... I. en quarto.

Gabon canta, edo otsaldia, por el mismo caballero.. I en quarto».

*Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País en la villa de Bilbao por septiembre de 1775.* (Vitoria: Tomas de Robles, [sa.]).

63.- MICHELENA, Luis. *Historia de la Literatura Vasca* (Madrid: Ed. Minotauro, 1960), 105 or.

64.- SAN MARTÍN, Juan. «Gavon-sariac» gure ilustrazioaren sarrera» *Euskera* delakoan. Bilbo, XX, 1975, 455 or.

garren «Otsaldia»ri «Artzai kanta» deitzen zaio. Letra ipini baino lehen «adikari» bat idazten du Konteak, tartean hau esanez:

«Belen inguruko arzaiek jakiñik Arzai berri bat eldu dela Abel echera, alkar arturik diazela ongi etorria ematera. Onetarako, Tirsis ta Filis lagun guztietatik gazteenai, ta pozik onenak dituztenai, enkargatu diete, ongi etorria guzien ize-  
nean ematea» (65).

Hauk dira, bada, Artzai Kantan honen pertsonaiak: «Arzai-korua» eta Tersis eta Filis. Azken bi hauek dirudenez beti batera abesten dute. Obra «kopla jostalluak» izeneko koplaz amaitzen da.

Ezer gutxi gehiago honezaz. Estiloaz pentsa daiteke garai hartan Espainia guztian egiten ziren obren antzekoa izango zela. Hau pentsa dezakegu, Konteak obraren aurkezpenean zera bait dio, Bilboko, Madrilgo eta Cadizko «gabon-kanta imprimatuak» ezagunak zituela eta bestalde lehen aipatu dugunez, Arantzazuko musikagileekin harremanak bazituenez, obrak ere ezagutuko zituelakoan gaude.

Azkenik, badugu bere garaiko gizon ospetsu baten eritzia, Larramendia jaunarena hain zuzen, nahiz eta gehiegi ez esan. 1763 urteko uztailean Gandara jaunari zuzendutako eskutiz batean honela dio:

«Ordaña bialtzen dizut Azcoitia aurten cantatu diranac, musica quilicora batean, PeñafloRIDACO Condeac eguin dituenac, eta berac musican paratu dituenac» (66).

Badago obra honekin beste arazo bat: Antzerkia al dugu? Orain arte beti honela hartu izan da: «Opereta pastoril» deitzen dio A. Aranek eta ontzat eman Lekuona jaunak. Gabriel Arestik argitara ematen duenean ere «Teatro zaarra»-ren izenburupean jartzen du.

Baina Joseba Andoni Lakarrak Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* (Gabonetako Ikuskizuna)-ri buruzko lanean zera dio:

«*Gavon-Sariac-i* buruz esan behar den guztia bere titulu argian esanik dago: *Gabon sariac edo aurtengo gabonetan Azcoytiko eliza nagussian kantatuko diran GABON-KANTAK edo otsaldiak.*

Hau da, Espainia osoan, gutxienez, garai hartan eta hainbat urte lehenago egin ohi ziren bilantziko ugariaren erakusgarri bat» (67).

Lakarrarekin bat dator Patri Urkizu, *Euskal Antzertia* liburuan (68), bilantziko edo gabon kanta soilak direla eta ezin direla antzerti arloaren baitan kontsideratu adieraziz.

65.- *Gabon-sariak.*, op.cit., *Euskal-Erria* aldizkarian, 170 or.

66.- TELLECHEA, JI., «Gabon-kantak» de Guernica...» op.cit., 162 or.

67.- LAKARRA, Joseba Andoni. «Barrutiaren Acto para la Nochebuena eta Teatro Erlijioso erromanikoa». *Gabonetako Ikuskizuna* = (*Acto para la Nochebuena*) liburuan (Gazteiz: Arabako Foru Aldundia, 1983), 16 or.

68.- URKIZU, Patri. *Euskalantzertia* (Donostia: Euskadiko Antzertizerbitzua, 1984), 85 or.



Egia da, nire ustez, ezin daitezkeela gaur ulertzen ditugun eskemetan antzerki obra bezela onar «gavon sari» hauek. Baina beldur naiz ez ote garen gaurko eskemak XVIII. antzerkiari aplikatzen ari. Zera esan nahi dut, ez dudala uste oso argi dagoenik XVIII. «antzerki» kontzeptuan zer den sar genezakeena, eta gutxiago oraindik antzerki musikalean. Bilantzikoei dago-kionez ez dago hain garbi zenbait kasutan erakuskizun izan zitezkeenik. Behar bada, «antzerki», «erakuskizun», «elementu dramatiko» kontzeptuak argitzeko daude oraindik, musikan behintzat. Azkenik, argi dagoena, gutretzat bederen, *Gavon sariac-ek* dudarik gabeko elementu dramatikoak di-tuela da.

### 7.3. Musika ez-erlijiosoa

Albiste idatziek adierazten digutenez, badakigu Konteak dantzako eta elizatik kanpoko musika konposatzen zuela. Ekar dezagun hona Elogio-ak dioenez, Azkoitiako danbolin joleari irakasten ziola:

«Haciéndole tocar zorzicos y contrapases de su composicion» (69).

Sevillatik Ignacio Luis de Aguirre jaunak zortzikoak eskatzen zizkiola ere esana gelditu da. Holako obrez gelditu zaiguna, egia esan oso gutxi da.

Ezagutzen dugun PeñafloRIDAREN zortziko bakarra Parisen 1813 urtean N. Pazek kaleratu zuan bilduma batean (70). Hau da izenburua:

«Zorcico / Chanson et Danse Biscaiene / Compose par Mr. le Comte PEÑA FLO-RIDA / Arrangée pour le Piano par Mr. PAZ».

Bi ahotsetarako eginik dago. A. Donostia izan da gure artean zabaldu duena eta zera dio obraz:

«Este zorzico del Conde de PeñafloRIDA no es de los que hacen inmortales a quien lo escribe, ni mucho menos. Pertenece al catálogo de esos que en el siglo XIX han aparecido para hacer las delicias de los pseudo-aficionados a música y desviar de su verdadero cauce el amor de la legítima canción popular vasca. El carácter musical de la composición de que hablamos me hace sospechar si tal vez algunos de los zorzicos o contrapases que tocan los chistularis para las Danzas Guipuzcoanas no será obra suya. De todos modos, puesto que de él hablamos, diré que su *tessitura* o manera de disponer las voces es violenta, porque aunque corto como duración, las voces (si son dos normales de tenor o soprano) andan siempre por el registro agudo. Notemos, sin embargo, que el título dice: «Arrangée pour le piano» ¿Qué parte cabe a Paz en este arreglo? Sospecho que tal vez este zorzico estuviera escrito originalmente para guitarra y canto. La índole de la colección en que estos zorzicos van incluidos me hace sospecharlo. No tendría nada de particular que así fuera pues la guitarra estuvo muy en boga entre los aficionados de música del siglo XVIII. La parte de Paz, sería, pues, una sencilla transposición de la guitarra al piano. Así lo creo.» (71).

69.- «Elogio de Don Xavier...», op.cit., 38 or.

70.- Bildumaren titulua hau da:

«Nos 1.2.3.4. / Les Beaux Jours / de / Séville / Collection / des plus jolis / Airs / et / Boleros Nationaux Espagnols / avec Acct. de Piano ou de Guitarre / composés par / N. Paz / En quatre livraisons».

71.- DONOSTIA, J.A. de. *Notas de musicología vasca: Dos Zorzicos del siglo XVIII* en 5/8 (San Sebastian: [Sociedad de Estudios Vascos], 1928), 7 or.

Peñafloridaren lanen artean konposaketarik luzeenak bi Tonadilla ditugu, izenburu hau dutelarik:

«Tonadillas á Duo / con Vyolynes y Bajo / Echas para las Bodas de Dn / Pedro Valentyn de Mugarte / guy, con my S.<sup>ra</sup> D.<sup>na</sup> Xav.<sup>ra</sup> de Elyo. / Por el Señor Conde de / Peñaflorida. / Año de 1762».

[ertzetan:] «De la Casa - de Uria». [behean:] «Azcoitia».

Bi tonadilla dira eta bigarrenak «Tonadilla 2.<sup>o</sup> de los dos Zagales de Aspilza» du izena. Zoritzarrez iritxi zaizkigun kopiak erruz beterik daude. Bi ahots osorik idatzita daude, baina laguntzaitzat baxua soila dago, eta zifrarik gabe. Hala ere, nabari da obra honetan Peñafloridaren luma ez zela hain kaskarra, tonalitateak baditu bere aldaketa eta modulazioak, ahotsen jokaeran kontrapuntua erabiliz gainera, betiko hirukotik ateratzen da beste linea batzuk lortzeko. Baina batez ere soma daitekeena, Peñafloridaren estiloa horrelako obretan ozartua eta alaia dela da. Bere idazkeraren iturriak ere agertzen dira: frantsesa («Opera comique»-ren zenbait aztarna), eta batez ere Madrilgo musika «castizo»aren ezaugarriak: honela bi tonadillek, ohi zen bezala, segidillak dituzte, benetan umoredunak. Oso kalitatezko gauza izan gabe, ongi idatziak daude, eta Peñafloridak berak bi urte geroago *El Borracho burlado* idatziko zuen obran bere maila deduz uzten duela baieztatzen digu.

Badugu gainera beste obra bat, Peñafloridarena osorik ez bada ere, nire ustez berarekin zerikusi handia duena, edo gutxienez Adiskideen Alkartea-ekin eta garai honekin. *Cancion del Bino* deitzen da, hiru abestik, eta ez bateg, osatzen dute. Lehenengoak, «Salutífero y aromático» du hasiera, eta doinua, hain ezaguna dugun *Donostiako hiru damatxo-rena* da. Bigarrena: «Ai niri zer egin ote zat», eta hirugarrena: «Folias y mas Folias». Hiru abestiak lau ahotsetarako daude idatziak (2 triple, kontralto eta baxua). Bigarren abestia da batez ere axola zaiguna, *Ai niri zer egin ote zut* honela hasten bait da baita ere *El Borracho burlado*-ren opera zatia.

Letra osoari dagokionez, abesti honetan azaltzen diren bertsoak A. Meagherrek ardoari jarritako bertsoen artean daude. Honetaz aurrerago mintzatuko gara. Orain axola zaiguna, musikara mugatuz, zera da, Urquijok argitarara emandako Canzoneta de Chanton Garroteren doinu bera dela abesti honetako bigarren triplearen doinua hartuz. Eta honetaz gain badago beste erlaziorik. *Cancion del Bino* delako hau Humboldt-en *Collectanea Linguistica*-ko paperetan aurkitzen da. Jakina da Humboldt-ek bi bisita egin zituela Euskal Herrira, bat 1799. urtean eta bestea 1801an. Azkeneko honetan D. Lorenzo Prestamero izan zen bere gidaria Gazteizen eta pertsona jakintsu hau Adiskideen Elkarteko artxibero zen. Bestalde, Humboldt-ek hainbeste dakien Justo Garate jaunak, bisitalariak Euskal Herritik jaso zituen musikez zera dio:

«...este Eguía debía ser filarmónico [Francisco J. Eguía IV Marqués de Narros] y con Fausto II Corral, Martin Dithurbide, Pierre Garat y Connock, oficial del regimiento irlandés de Ultonia en Madrid, suministraría datos musicales vas-

cos al baron prusiano que ahora obran, por mi intercesión, en el legado del sabio y finísimo artista, que fue el P. José Antonio de Donostia...» (72).

Aipaturiko bost horietatik, bik badute zerikusia Adiskideen Elkartear-kin. *Cancion del Bino* lan hau Aita Jorge de Riezuri esker dugu ezaguna eta bere ikerlanera jo dezake abesti hauezaz gehiago jakin nahi duenak (73).

#### 7.4. Antzerkiko musika

«Peñaflorida tuvo una preocupación mayor por las formas en que el teatro se unía a la música, su gran pasión» (74) esan du Emilio Palaciosek. Eta benetan, antzerkiko ia bere lan guztiak musikalak ditugu. Hala ere, oso mugaturik aurkitzen gara hauezaz hitzegitean, obra guztietatik hiru bakarrik ezagutzen bait ditugu eta hauek musika-rik gabe, letrak, hitzak besterik ez.

*El Mariscal en su fragua* aipatua gelditu denez, 1764. urtean estreinatua zen, *El Borracho* burlado-rekin batera. Libretoa ezaguna dugu, urte hartan bertan, Gasteizen inprimatu bait zen Tomas de Robles-en etxean (75). Tituluak berak zenbait puntu argitzen digu:

«EL MARISCAL / en su Fragua / OPERA - / COMICA / escrita / EN  
FRANCES /por Monsiur / QUETANT, / y puesta en Musica /por / PHYLIDOR  
/ traducida al español /por un cavallero / GUIPUZCOANO» (76).

Bergarako Udaletxeak egindako eskaintzan egiaztatzen du zein den obra honen berezitasuna:

«el primor con que junta lo gracioso de una Opera bufa, á la mas escrupulosa regularidad y observancia de las leyes del Teatro» (77).

Baina Peñaflorida bera da hitzaurrean zenbait puntu argitzen diguna:

«Hicela solo para representarse entre unas Señoritas, y unos amigos míos aficionados a la Musica que quisieron divertirse en dar un Espectaculo, nuevo para este País, á los Caballeros concurrentes á las Juntas de esta Provincia, en Azcoytia» (78).

---

72.- GARATE, Justo. «El triunvirato Vergarés de los Amigos del País y la Familia Narros», Munibe aldizkarian. San Sebastian, XXIII, 4 z., 1971, 451 or.

73.- RIEZU, A. Jorge de. «Material folklórico de la Collectanea Lingüística de Humboldt. Cancion del Vino», *Boletín de la Institucion «Sancho el Sabio»* delakoan. Gazteiz, XV, 1971, 91-115 or.

74.- PALACIOS, Emilio. «Actividad literaria del Conde de Peñaflorida. El Carnaval», *Boletín de la Institucion «Sancho el Sabio»* delakoan. Gazteiz, XVIII, 1974, 522 or.

75.- Ikus YRIZAR, Joaquin de. «*El Mariscal en su fragua*», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* delakoan. Donostia, XVIII, 4g. koad. 1962, 427-428 or.

76.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Liburutegia. Caja Fuerte. Iturria: Fondo Urquijo 6.268.

77.- Ibidem.

78.- Ibidem. Era beran zertarako argitaratzen den testua adierazten digu:

«Aora que nos hallamos ya en vispera de estas magnificas Funciones se han empeñado los Caballeros de Vergara en dar á la Imprenta esta pieza, á fin de que los que asistiessen á ella tengan delante un exemplar, evitando por este medio el que por falta de percibirse con claridad todo lo que se canta se pierda el hilo de ella».

Itzulpenaz ere mintzo zaigu:

«Debo también prevenir, que aunque no se ha alterado substancialmente esta traducción de su original, se ha hecho sin embargo tal qual variación, yá en suprimir, yá en añadir algunas cosas que han parecido precisas» (79).

Gai honez Luis M.<sup>a</sup> Aretak idatzirik utzi du:

«El Conde de Peñaflorida ha utilizado el texto de Quétant pero adaptándolo a su manera, ya que era doblemente difícil darle al sentido correspondiente en castellano y aplicar las palabras a la música original francesa que se utilizó para la representación. El Conde realiza de este modo una composición muy personal donde transparecen sus cualidades poéticas» (80).

Badago opera honetan garrantzi handiko dato bat. Hitzaurreko nota bezala ageri da:

«Quatro Arias que van señaladas con una estrella no son de la Opera del *Marechal Ferrant* sino de otra Italiana intitulada la *Serva Padrona*, las que se han añadido por alargar algo la Pieza».

Ez zaio dato honi duen garrantzia eman. Batzutan, eraginen modernotasuna argitzeko estreinaldiaren datoak hartzen dira, eta honela *Marechal Ferrant* obra 1761 urtean estrainatu bazen eta *La Serva Padrona* 1733.ean, urteek argi adierazten dute hori. Baina azken obra honen kasua desberdina da. 1752. urteko abuztuan Parisen eginiko *La Serva Padrona-ren* antzezpena, ez zen bertan egiten zen lehena baina huraxe, istilu handi baten hasiera izan zen *Querelle des Bouffons* izenekoa, hots, italiar eta frantziar musikaren arteko lehentasuna zegoen auzitan. Hortik aurrera datorkio Frantziari *Opera comique*. Eta nire ustez garrantzizkoa da Euskal Herrian opera aurkezten hasten denean Pergolesiren obra hau azaltzea. Egiazat jotzen dut obra Frantziatik datorrela, eta ez da inolaz ere anakronismo bat, operaren kontzeptu berrien oinarriak adierazten dituen musika bat baizik.

*El Carnaval*, Emilio Palaciosek ezagutarazi digun beste obra bat da, eta beraz honela dio:

«Es un sainete lírico, género que estuvo en boga en la segunda mitad del siglo XVIII» (81).

Badu zerikusirik *El Borracho* burlado-rekin, nahiz eta bere ustez, «menos compacta y coherente» izan. Julio de Urquijok obra honen berri emana zuen:

«Mas en el archivo de don Juan de Mugarátegui... ha aparecido una tercera [El Borracho burlado eta El Mariscal en su Fraguaz aparte], intitulada: Comedia Famosa que se representó en la villa de Azcoitia, provincia de Guipúzcoa. Su autor el Conde de Peñaflorida, es también de la música de su sainete» (82).

Bertan azaltzen diren musiken artean, badira *El borracho burlado* obran azaltzen diren musika berak, baina berriak ere badira, hasierako segidilla

79 . - Ibidem.

80 . - ARETA, Luis M.<sup>a</sup> *Obra literaria...*, op.cit., 226 or.

81.- PALACIOS, Emilio. «Actividad literaria...», op.cit., 527 or.

82 . - URQUIJO, Julio de. *Menéndez Pelayo...*, op.cit., 9 or.

eta Trufaldinek bere mutilekin aurkezten duten pieza gutxienez. Hala ere, galdurik daudenez, ezer gutxi dugu esateko.

Ez dut uste *La Tertulia* deitzen den komediak besteak bezalako musika zuenik. Elkartearen lehendabiziko Biltzarretan irakurri eta antzezten da, baina ez da inoiz musikaz hitzegiten. Peñafloidak bere «Historia de la Sociedad...» delakoan honezaz mintzo denean ez du horrelakorik azaltzen:

1765 urteko otsailak 8a. Goizez:

«Leiose despues la Comedia original que dispuso el Amigo Director con el título de la tertulia... Con esta lectura se dio fin a la Asamblea y por la noche se represento la misma pieza de la tertulia» (83).

Ziur dakigunez, badago beste obra bat, arestian aipatua, bukatu gaberik, antza, Peñafloidaren lumatik aterea, *La Paz* izeneko «drama ú opera cómica».

Azkenez, A. Joaquin Azpiazu 1923. urtean Santestebanen (Doneztebe) emandako hitzaldi batetan, obra batetaz ari da Peñafloidaren aitatasuna dudamudazkotzat joz:

«Urkixo Julio jaun agurgárik eman zigun Munibe'tar Xabier Maria, Peñaflo-rida'ko Kondearen komeditxo bat, euskerazko batzuek dakárzkidana. Baña er-derazko bilbean saítua. Ez da ala nik aúrten nerabilela bilatu detana; dana da euskerazkoz, gabonetarako egiña.

Egílea nor izan ote zan ez dakit. Izkiaren antzen, emezortzigáren eunkadikoa dala dirudi; nere ustez, eunkadiaren érdi-aldekoa. Bereala burura etóri zitzaidan Muniberen izena; ta besteri ez jakin arte, usatzen det, azkoitiar ura «SOCIE-DAD VASCONGADA» deritzaionaren éragílea, izan ote zan gure euskelzalia. Ez da ez Azkoiti'ko izkuntza, baizik bizkaitarena; baño Bergara'n ta Márkina'n nola ibili zan, ez da ori nere ustez berak egiteko eragozpen aundirik. Dana dala, ona emen aren idarikia, besterik orain ezin nezaizuke ta.

Amá urteko mofoitza egin zion bati, nai izan zion jabeak bere móroitaz or-daindu; ta esan zion: ordaintzat nere iru alabeen bat eskontzarako artu ezazu. Iru alabak ziran: Aldontza, Kiteri ta Sabina. Aldontza ártu zuan, ez órdea Aldont-za'ren maitetasuna; ala bada bildu zituan irurak bériro aukeratzeko. Besteen maitalariak atera zitzaizkiote, ta azkenian bat ere gabe gelditu zan móroi gixa-ga-joa. Ériko izkuntza érexian dago, giza-seme agerkideak *ika* geyenetan dagite. Len bait len, Jainkoak lagun, aterako degu danok ezagutu dezaten ya béregun úrte zaí dan jostalu polit au, oraingo aintzokilari antsuen ártean, astiz biñipin, au-felaria izan dedin» (84).

Tamalez, 1962. urtean Lino de Aquesolok honezaz hitzegiten duenean galdutzat ematen du (85) eta oraingoz honela jarraitzen du.

83.- PEÑAFLOIDA, Conde. «Historia de la Sociedad...», op.cit., 456-457 or.

84.- AZPIAZU, Joaquin, S.J. «Euskera záraren apurtxoak». *Bigáren euskalegunetako it-zaldiak Doneztebe-n 1923-gáren Irailean ospatuak*, delakoan, 132-133 or.

85.- AQUESOLO, Lino de. «Testimonio de Aizquibel sobre el autor de «Gavon-sa-riac».- ¿Otra obra teatral mas del Conde de Peñafloida?». *Boletín de la Real Sociedad Bas-congada de los Amigos del País* delakoan. Donostia, XVIII, 2g. koad., 1962, 430-432 or.

## 7.5. El Borracho burlado

Oso ezaguna bada ere, *El Borracho burlado-ren* aurkezpenaz ari den Elogio-ren zatia osorik ipiniko dugu, duen garrantzia dela medio:

«Las disputas, por decirlo así, piadosas, pero reñidas entre la Villa de Vergara y la de Beasain, sobre la pertenencia de un Santo Martir, estaban preparando á nuestro Conde (sin que él ni nadie lo pudiese adivinar) la época que tanto deseaba de la reunion de varios amigos animados del mismo espíritu patriótico. La Villa de Vergara logró una Bula de su Santidad concebida en terminos favorables, y determinó celebrar esta Victoria con unas fiestas magníficas: acudió a Peñaflorida, que se presentó gozosamente al desempeño.

Empieza trabajar al instante, traduce con elegancia una ópera cómica Francesa: crea una opera Bascongada: reparte los papeles de una y otra: se prepara á salir á público teatro con compañeros de ambos sexos de la primera distincion. Sin mas principios de musica que unas ligeras lecciones de violin que tomo en el Seminario de Tolosa, compone su opera, donde habia bellas arias, graciosos duos, trios, y muy buenos coros, y una grande abertura de toda especie de instrumentos. No la oyó profesor que no se hiciese lenguas de ella. Dudo que haya habido otro exemplar de semejante talento musico.

Es imponderable la fatiga y el afan con que nuestro Conde, transformado en autor cómico, y en compositor, instruía a los nuevos operantes. Como estos vivian dispersos en diferentes pueblos de Guipuzcoa y Vizcaya, era casi imposible reunirlos en un lugar; y así tenia que acudir nuestro Conde á todas partes. Tan pronto estaba en Marquina, como en Vergara, y en Azcoitia, ocupado y afanado en ensayos, en reparos de su nueva opera, y en formar y entonar la nueva compañía; pero salio con el intento. El día 11 de septiembre de 1764, se representaron ambas operas en la sala consistorial de la Villa de Vergara; ¡pero con qué aplauso, con qué satisfaccion de todos los expectadores! Fue tan grande el concurso, y tan lucido, que no puede hacerse creible, sino a los que le vieron» (86).

Lehenengo antzezpena Azkoitian egin zen, urte bereko uztailean. *El Mariscal en su fragua* bezala, bere testua Gasteizen inprimatzen da urte berean. Zorionez, honen ondorioz testuari dagokionez literaturaren ikuspegi-tik ongi aski aztertua dago, batez ere Areta eta Palacios jaunek egin (88). Laburpen bezala jar ditzagun hemen bion iritziak. Luis M. Aretak honela dio:

«Tras este estudio de la zarzuela *El Borracho burlado* podemos afirmar que el Conde de Peñaflorida logró hacer una obra de real valor dramático dentro de este género menor de la zarzuela, y compartimos la afirmación de la villa de Vergara de que tiene su puesto dentro del teatro de la época» (89).

86.- «Elogio de don Xavier...», op.cit., 41-43 or.

87.- YRIZAR, Joaquin de. «Tomas de Robles, impresor de las Operas de Peñaflorida», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* delakoan. Donostia, XI, 3g. eta 4g. koad., 1955, 447-448 or. Bi berrimprimaketa ezagutu ditu geroztik. Bat, *Revista Internacional de Estudios Vascos* delakoan, I 1907 (383-408; 481-496), II, 1908 (298-301; 564-568) eta III, 1909 (248-260). Bigarrena, Gabriel Arestiren ardurapean argitaratzen den *Teatro Zaarra* liburuan (Donostia: Auspoa, 1965), 79-160 or.

88.- Bi hauek, halere, erdara, eta forma eta egitura aldetik aztertzen dute. Ez dira euskarazko kalitatez ari. Honetaz, A. Villasantek zera dio: «Los cantos y ciertas partes están en vasco - y por cierto, en un vasco muy natural y sabroso-el resto en castellano» (*Historia de la literatura vasca* (Aranzazu: Ed. Aranzazu, 1979, 2g. ed., 126 or.).

89.- ARETA, Luis M.<sup>a</sup> *Obra literaria...*, op.cit., 172 or.

Emilio Palaciosek bere aldetik:

«El bilingüismo de la composición puede ser uno de sus principales éxitos [...] La obra no tiene valores literarios especiales. Es sumamente sencilla» (90).

Testua alde batera utziz, jo dezagun orain musikara. Eta musikaz, azken urte hauetan badira lau artikulua gai beraz idatziak: *El Borracho burlado-ren* musikaren berraurkezpena Oinatin 1981 urteko urrian (91). Hiru egileek, nahiz eta dudaren bat azaltzen den, ez dute zalantzan jartzen partitura Peñafloredarena denik. Iñaki Zumaldek adierazten digu 1964. urtean Bergaran, Javier Bello Portu ematen ari zen hitzaldi batetan izan zela partitura hori azaldu zenean. Eta 1964 urteko irailaren 23an *El Diario Vasco* egunkarian: «Ha aparecido en Vergara una partitura de «El Borracho burlado»» izenburuko artikulua azaltzen da Jose Larrea Elustizak izenpetua. Bertan, partitura hori Evaristo Espinosa y Garai familiak zuela esaten da. Partitura original hori ikusi, aztertu eta ezagutu dugun testuarekin konparatu ondoren, gure aldetik laburpen moduan esan behar duguna hau da: musika hori idatzia dagoen moduan ez dugula uste XVIII. mendeko opera bat izan daitekeenik (92). Egia esan, ez dugu uste musika hori Peñafloredak idatzi zuenik, eta honen ondorioz, *El Borracho burlado-ren* musika oraindik ere galdutzat ematen

---

90.- PALACIOS, Emilio. «Actividad literaria...», op.cit., 527 or.

91.- Hurrenkera kronologikoan jarriko ditugu: 1/ZUMALDE, Iñaki. «Resposición del Borracho Burlado», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* delakoan. Donostia, XXXVIII, 1, 2, 3 eta 4 koad., 1982,367-370 or. 2/ALEN [BELLO PORTU, Javier], ««El borracho burlado» o «Chanton Garrote»», *Euskor*, Donostia, 3 z., 1983ko martxoa. 3/ZAPIRAIN, José M.<sup>a</sup>, ««El Borracho Burlado» del Conde de Peñafloreda», *Revista de Musicología*. Madrid, VI, 1 eta 2 z., 1983, 571-580. 4/ZUMALDE, Iñaki, «El Conde de Peñafloreda como músico», *Euskor*. Donostia, 10 z., 1985ko apirila, 52-54 or.

92.- Musika hori bakarrik hartuz, eta XVIII g. mendeko musikatzat hartzen dela kontuan edukiz, harritzekoak dira elementu orokor hauek: Melodia arloan, garaian oso normalak ez ziren tenuto eta agogiko beste elementu; puntillo bikoitzen erabilera; ohizkoak ez diren interbaloak. Armonia arloan, 7go eta nota disonante gehiegi azaltzen dira. Alteratuak diren akordeak ere maizegi azaltzen dira. Tonalitateak ere asko aldatzen dira, modulazioak azkarregiak direlarik (garairako noski). Metrika aldetik, oso arraroa, benetan harrigarria, 1764 urte opera komika batek 5 aldiz 5/8 neurria erabiltzea, eta horietatik lau, aria baten barritan. Era berean, bitxitzat hartzen dugu, zenbait zatitan dauden neurri aldaketak (10 zatitan gertatzen da). Idazkera aldetik kromatismo diatoniko gehiegi dagoela ere esango genuke. Laguntzari dagokionez, oktabaz josita dago obra, eta nolabait argi dago bere idazkera arront pianistikoa dela. Ez da esku eskubian biolinarako idazkeraren inongo arrastorik ikusten, eta esku ezkerri dagokionez, berea ez da baxu kontinuo baten tratamendua. Bestalde ahotsekin duen jokua, pianoko jokua da, ez da orkestraren kutsurik ikusten. Estilora jotzen badugu berriz, harritzen duen lehenengo gauza ezagunak diren hainbeste abesti elkarrekin ikustea da. Ohar espresibo gehiegi daude (rit., accel., cres., etab.), XVIII g. mendean, eta batez ere hemen, oso arraroak zirelarik. Errezitatioek ezer gutxi dute XVIII g. mendekoekin ikustekorik. Eta orokorrean zati guztien planteamendua bera da: laguntzaren sarrera txiki bat, eta ondoren ahotsa sartzten da. XIX g. mendeko abestietan egin ohi zena.

Musika hau testu originalarekin konparatuz, bai testu, bai forma aldetik zera esan genezake: VII sceneko Ariaren «Ritornelo»-rik ez dago partitura honetan; ez eta XXXII sceneko Ariarena. 6 scena desberdineko testuen zatiak falta dira honetan. Nabarmenena behar bada, XXIX scenako tonadilla oso bat litzateke. Formari dagokionez, IIg. scenako musikak «arieta rondeau» bat izan behar zuen, eta ez da horrelakorik azaltzen. XIX scenako Ariaren ez da «estri-

ten dugu. Baina musika eta testuaren konparaketatik atera daitezkeen datuez gain, beste dato batzuk ere badaude (93). Auzian dagoen partitura hau azaldu zenean ere badirudi ez zeudela denak ados, Isidoro de Fagoagak 1968, urtean «La opera vasca» izeneko lana argitaratu ematen duenean:

«Recientemente se ha verificado un nuevo hallazgo: se trata a juzgar por las declaraciones o suposiciones de varias personas, de la partitura completa de *El borracho burlado*. Pero hay un detalle inquietante y es que el tal hallazgo, que en un principio fue acogido con la natural expectación no acaba de confirmarse, antes bien las opiniones sobre su autenticidad son diferentes y hasta opuestas. Pasa el tiempo y la discordancia sigue en pie: para algunos se trata de un amaño, de una burda mixtificación; para otros, en cambio, los papeles descubiertos y la música en ellos contenida son los mismos que compuso o adaptó el Conde. Nosotros, por nuestra parte, opinamos que no debe aceptarse ningún juicio sin un previo y minucioso examen de los documentos en litigio» (94).

Nire ustez, Urquijo jauna de honetaz gehiena arduratu dena, eta gai hau, oraingoz behintzat, berak utzi zuen bezala dago (95).

billo»ra bueltatzen. Oso arraroan, ezinezkoa guretzat, bi Aria 5/8 neurritz hastea, eta nahiko arraroa azaltzen den «Jacara», gaur ezaguna dugun jota bat izatea.

Eta ikuspegi orokor honekin bukatzeko, ba dira beste bi dato: bat, hasierako obertura falta dela, eta bestea, partitura honetako «Canzoneta»-k ez duela Urquijo jaunak argitaratu zuenarekin inongo zerikusirik.

93.- Nahiko arraroa da eztabaidan dagoen partitura hau Peñafloredarena izatekotan, joan den mendeko azken urteetan eta honetako lehenengoetan gai honi buruz izan ziren ikerketetan ez azaltzea. Behar bada komenigarria izango da *El Borracho Burlado*-ren bilakaera musikalaren kronologia ezartzea:

1882 urtean, Donostiko *Euskal-Erria* aldizkarian (VII t., 226 or. «J.M.»-k izenpetua hau agertzen da:

«¿Habrá alguna persona curiosa que pueda darnos noticia de la música de esta opereta, ó que sepa algo de ella?».

1883 urtean, aldizkari berean (VIII t., 306 or.), J. Ignacio de Arana, *El Borracho burlado*, eta *Gavon-sariac-ez* ari da, azken obra honetarako euskal antzerkiaren lehentasuna eskatuz, baina operaren musikaz ez du ezer argitzen.

1905 urteko Urriak 29an, Julio de Urquijok, «El Conde de Peñafloreda y las fiestas euskaras de Vergara» idazten du *El Correo de Guipuzcoa*, 2660 z. delakoan:

«...Vamos unicamente a lamentarnos de que no se haya aprovechado tan oportuna ocasión como la actual para representar la ópera cómica «El Borracho Burlado»..

Se nos dirá probablemente, que por haberse perdido la música de dicha ópera, no era posible realizar lo que nosotros pretendemos: pero puesto que afortunadamente existen todavía algunos ejemplares (aunque raros) de la mencionada ópera bilingüe: ¿no cabía haber señalado como tema del «Certamen Musical» la composición de una partitura que se adaptase al libreto del Conde de Peñafloreda?...»

Artikulu bera *Euskal-Erria* aldizkarian (LIII t., 1905) azaldu zen.

94.- FAGOAGA, Isidro de. «La ópera vasca», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* delakoan. Donostia, XXIV, 1968,404 or.

95.- URQUIJO, Julio de. «Sobre la música de «El Borracho Burlado»», *Euskalerrriaren Alde* delakoan. Donostia, III b., 1913, 78-82 or.

«No es que la solución del pequeño problema [musikarena] no haya tentado antes de ahora á diversos eruditos de dentro y fuera del país. Una revista vasca trató de poner en claro el asunto».



Urquijok 1905. urtean idazten duena kontutan hartuz, eta Bergaran Evaristo Espinosaren familiak gordetzen dituen kopiak konparatuz, 1964. urtean Peñafloredarena bezala azaldu zena, 1910 edo 1920 inguru eta Bergarako giro musikalean idatzia ote dagoen hipotesia ezartzen dugu (96).

Julio de Urquijo jaunak 1913. urtean, Bonaparte Printzearen paperen artean zegoen *Canzoneta de Chanton Garrote* argitaratzen du (97).

Gure ustez zati hori da *El Borracho burlado-ren* zati musikal ezagun bartzat har daitekeena. Baina honek ere problemak planteatzen ditu, eta ez txikiak gainera. Urquijok berak honako hau azaltzen digu:

«A la sorpresa de haber encontrado entre los papeles de Bonaparte estos compases del música, no identificados por nadie que yo sepa, hasta el día, con la Opera-cómica en que ahora me ocupo, se añade el extraño descubrimiento de que el aire de Chanton Garrote no solo no me es desconocido, sino que lo considero muy popular en gran parte del País Vasco. Es más, ni siquiera es inédito, puesto que coincide en gran parte con el de unos versos compuestos, allá por el siglo XVIII, por un jesuita donostiarra, el P. Meagher. Véanse para comprobación de mi aser-

---

to, hace ya bastantes años, á lo que creo, sin resultado satisfactorio. Más tarde M. Vinson, mostró deseos de esclarecer el mismo punto, y, para complacerse, interrogué sobre el particular á algunos amigos míos emparentados con la familia del autor de la ópera vasca».

Ordoren, Luis Luciano Bonaparte printzearen alargunak zituen paperen artean azalduko «Canzoneta de Chanton Garrote» argitaratzen du.

96.- Gure eskerrik beroenak Jose M.<sup>a</sup> Juldain Laspiur jaunari dokumentoak ikusteko eta fotokopiatzeko eman dizkigun erraztasun guztiengatik, bera bait da orain paper horien jabe. Hauek dira, ordenean jarrita, karpeta berean dauden paperak:

1916ko uztailaren 19an Evaristo Espinosa y Garay-k (1855-1931) Bergarako Udaletxean gordetzen den *El Borracho Burlado-ren* libretoaren kopia bat izenpetzen du. Honez gainera, esku beraz eginiko eta paper berdinean kopiatutako antzezleri bakoitzaren zatiak gordetzen dira.

1916 urteko «garillan». Osorik euskaraz dagoen kopia bat, bere bukaeran hau azaltzen delarik:

«Antzerti onen erderazko zatiya bergara'tar batek euskeralduta dago emen 1916'gko Garillan». Pertsonaien izenen aldamenen ahotsa musikala jartzen du (eztabaidan dagoen partituran azaltzen diren berak dira).

1921eko, Urtarrilak, 21. Euskarazko beste kopia bat:

«Bergara'tar batek euzkeratu du bere erriko Euzko-Batzokiaren antzezleri taldeai opalduzen diola». Errepartoan ere ahots musikalen izenak azaltzen dira.

Azken bi kopia hauen testuak, partiturakoa eta originalarekin konparatu ditugu eta harrigarria da lehenengo hirurak bestearekin konparatuz desberdintasun txiki asko daudela. Desberdintasunak normalki hitzei dagokie, bai bera edo bere ortografia aldatuz. Desberdintasunik nabarmena zera da: hiru kopia horiek lehen aipatu dugun XXIX scensako bigarren tonadillaren letra ez dutela. Ez eta segidilla ondoren azaltzen den «estrevillo»-a ere (frantsesez dagoena).

Eta ez dut uste kasualitate bat denik karpeta berean beste partitura hau egotea: «El borracho burlado. Tonadilla de la Peregrina. Música de D. Vicente de Monzón». Ez da bigarren tonadilla, lehenengoa baizik; baino auzitan dagoen partiturako zatiaz gainera, hemen frantsesez dagoen «estrevilloa» azaltzen da. Bestalde, Monzonek idatzitako tonadilla honek ba du beste partituraren hasierako doinuarekin zer ikusirik.

97.- URQUIJO, Julio de. «Sobre la música...», op.cit., 80 or.

to *Aita Meagher-ec, Ardoari jarritaco cantac* en la *Coleccion de Aires vascongados para canto y piano*, por Santesteban (n.º 5) y en el *Cancionero Vasco* de Manterola» (98).

Aipatzen dituen bi argitaraldiei beste bi dokumentu erantsi behar dizkiegu, zaharragoak gainera. 1826ean Iztuetak argitaratzen duen euskal dantzen soinuen liburuan 50 zenbakiaz azaltzen dena, «Aita Meakerek ardoari jaritako itz-neurtuen soñua»; eta bestea, aipaturiko *Cancion del Bino-ko* bigarren abestia, bera dugu:

Urquijok galdera-erantzun hau planteatzen du:

«Sabemos qué letra pertenece al Conde y cuál al jesuíta pero ¿quién será el autor de la música?

Paréceme que el primero (de no ser una adaptación de un canto popular) puesto que al hablar Manterola de la composición del P. Meagher, escribió: «sus versos, *Al vino*, de carácter eminentemente popular, fueron puestos en música, indudablemente en su época, y sin que se sepa por quién, llegando a hacerse vulgares»» (99).

Jose Antonio Arana Martijak, aldiz, zera dio:

«Baina norena de doinua, Meagher-ena ala Muniberena? Urquijok Muniberen alde jotzen du, baina nik esango nuke josulaguna dela honetan lehena. PeñafloRIDAKO KONDEAK 1764an bere opera antzeztu zuenean, 61 urte zituen Meagher-ek eta ordurako aspalditik Ardoari bertsoak jarriak zirela sinistu beharko genuke» (100).

Egia esan, Urquijoren iritzira gehiago makurtzen gara. Nahiko harrigarria deritzagu Meagherrek musika jartzeari, bere eskuko beste abesti edo musikariki ez bait dugu ezagutzen. Baina baliteke, Urquijok seinalatzen duen bezala, ez batena ez bestearena ez izatea. Eta ez da hain hipotesi makala. *El Borracho burlado* opera osoan, zati honi bakarrik deitzen zaio «Canzoneta», izena duten zatirik gehienak «Aria», «Arieta», «tonadilla» edo «seguidilla» direlarik. Ezaguna da halaber, garaiko *Opera Comique-ren* barruan doinu herrikoiak sartzeko ohitura bazegoela.

Argi eta garbi dagoena, abesti hori herrikoia izan dela da, Xenpelar bertsolariaren «Iya guriak egin du» bertsoen doinuak ere bai du berarekin zeri-kusirik, J.A. Arana Martijak azpimarratzen duenez (101).

98.- Ibidem, 81 or.

99.- Ibidem, 81-82 or.

100.- ARANA, José Antonio. «Manterolaren «Cancionero Basco», *Euskera* delakoan, Donostia, 29, 1984-II, 460 or.

101.- Ibidem, 461 or.

## 8. PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN OBRA MUSIKALEN INBENTARIOA

### «In honorem Sancti Spiritus» kantu launeko Meza

- Inprimatua. Fotostatika erara argitaratua:  
URTEAGA, Juan  
«Una misa del Conde de Peñaflorida».- *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*.-Donostia, II urtea, 1946,2g. koad., 5-8 or.-Beste partitura hau ere badauka: «O gloriosa á 3 voces por Balzola». Laguardian zegoen Alvaro de Gortázar jaunaren artxibo pribatutik dator-kigu. Do 4g. klabean dago idatzia.
- Bideaurretako Klarisen Komentua. Oñati.  
3g. zenbakiko Koru liburua. 34 or. :  
«Del Conde de Peña Floryda por 5 pto Alto»  
Ei. plantillaz egin. XVIII g. mendeko kopia. Hasierak eta pentagrama gorritz. Notak beltzez. Fa 2g. klabea.

Azken bi agnusak falta dira.

- Bergara. Eustaquio Azcaraten kopia (Bergara, 1887-1965).  
Ei. koad. 6 f.22x32 zm. 1964ko kopia.  
Eskuizkribu honetan bakarrik ematen zaio «in honorem Sancti Spiritus» izenburua. Gaurregun Errenteriako ERESBIL Artxiboan gordetzen da.

Kopiaren bukaeran honoko hau irakurtzen da: «24-IX-64 Bicentenario Fundacion (Amigos) del Pais Sociedad Patriotica Vascongada de Amigos del Pais».

Baxuaren bi particella ere gordetzen dira, Sanctus, Benedictus eta Agnus bakarrik dituztelarik.

### «6.º tono» kantu launeko meza

- Urretxu. S. Martin de Tours Parrokia  
Koruko liburua. Ei.  
«Missa del Sr. Conde de Peña flor.<sup>a</sup> de 6.º tono»  
Fa 3g. klabea.
- Eibar. San Andres Parrokia  
koruko liburua. 40x27 zm. Ei.  
«Missa de 6.º tono. Compuesta por el Señor Conde de Peñaflorida»  
Do lg. klabea.  
«Credo»aren «Et incarnatus» bi ahotsetarako dago.  
Juan San Martin jaunari esker lortutako kopia.

**«Duo al Nacimiento del Conde de Peñaflorida» [Entre rigores del frío...]**

- 2f. XVIII m. bukaerakoa. SOL N. Erozo

Paper askatuak:

Ti1, Ti2

«Ac.» falta da

Lekarozeko Aita Donostiaren Artxiboan gordetzen da naiz eta hasera batean Arantzazuko artxiboan egon. Aita Donostiak bere eskutik egindako kopia bat gordetzen da. Bukaeran hau irakur daiteke: «Copiado de dos particellas existentes en el Archivo Musical del Convento de Aranzazu. 28. IX. 1943. P. Jose Ant.” de S.S.».

**«Pasos de la pasion a tres voces por el Sr. Conde de Peñaflorida»**

- Bergara. San Pedro Parrokiko artxibo musikala.

XIX mendeko kopiak:

«1.<sup>a</sup> voz» (Do 1g.), notazio karratuko kopia. Notazio modernoko kopia.

«2.<sup>o</sup> voz» (Do 1g.), notazio karratuko kopia. Notazio modernoko kopia.

«Voz 3.<sup>a</sup> (Fa 4g.), notazio karratuko kopia. Notazio modernoko kopia.

Lau pasioak ditu, Erramu Igandekoa, Astearte Santu, Asteazken Santu eta Ostiral Santukoak.

- Markina. Xemein Parrokiako artxibo musikala

Ms. 390. XIX mendeko kopia

«Pasión del Domingo de Ramos»:

«Voz 1.<sup>a</sup>»: tenorea

«Voz 2.<sup>a</sup>»: tiplea (3 kopia)

«Voz 3.<sup>a</sup>»: baxua

Laguntza (ahotsen erredukzio bat da). 2 kopia

Paper batean hau irakurtzen da:

«Esta pasión o letra se canto el miercoles santo del año 1891 con motivo de haber coincidido Ntra. Sra. de Marzo ese dia. Son los numeros 1.<sup>a</sup>, 3.<sup>o</sup>, 5.<sup>o</sup>, 7.<sup>o</sup>, 8.<sup>o</sup> y 9.<sup>o</sup> de la pasion del Sr. Conde de Peñaflorida».

- Markina. Xemein Parrokiko artxibo musikala

Ms. 391. XIXg. mendeko kopia

«Tenor, para la pasión del Miércoles Santo» (2 z., Erramu Igandeko Pasioko 3 zenbakiarekin bat dator).

Ostiral Santuko Pasioa:

«1.<sup>a</sup> voz»

«2.<sup>o</sup> voz»

«3.<sup>a</sup> voz Acompañamiento» (ahotsen erredukzioa).

- Azkoitia

*Elenco de Cantos Religiosos. Garmendia'tar Telesforo Jaunari bere urte betetsean. 1962 garen urtean Lañañaga'tar Manuelek*

59-61 or. :

«Trios de la Pasion». Partitura orokorra, hiru ahotsetara:  
 «Pasión del Domingo de Ramos» (4 zenbaki)  
 «Pasión del Marres Santo» (zenbaki bakar bat)  
 «Pasión del Miércoles Santo (3 zenbaki)  
 «Pasión del Viernes Santo» (4 zenbaki)

- Arantzazuko Santutegiko Artxibo musikal zaharra  
 Ms. 847  
 «Domingo de Ramos. Pasión» [*Passio Domini nostri...*]  
 Ei. fol. (2 koad. 22,5x15,5 zm) (f.g.) re tx. Erozo. XVIII m. bukaerakoa  
 Paper askatuak:  
 A1, B1
- Azcoitia. J.I. Uria jaunaren Liburutegia  
 «Voz 2.<sup>a</sup> Domingo de Ramos. Pasos de la Pasion á 3 voces. El S.<sup>or</sup> Conde de Peñaflorida / 1761».  
 Ei. fol. (1,22x15,5 zm.) re tx. Erozo  
 Nahiz eta 1761ko data azaldu, hizkiek kopia hurrengo mendekoa ez ote den pentsatzeko aukera ematen digute.

### Irtean ezazu

- Donostia. Santa Maria Basilika  
 Ahots batetarako particellak: «Yrten ezazu, Cántico de Navidad. Conde de Peñaflorida».
- Errenteria. Eresbil Artxiboa  
 «Repertorio azcoitiano de Música religiosa», Jose Izurrateguiaren kopia., 7 or., tipleren 2 ahots eta organoa. «Coro de hombres»entzat egindako beste kopia bat du ondoren, «transcripción a 4 voces»
- Errenteria. Eresbil Artxiboa  
 f. 1, la tx. Ahots 1 eta laguntzarako Kopia.
- Errenteria. Eresbil Artxiboa  
 Aita gurea azaltzen den kopia berean. Bi pentagrametan lau ahotsetarako idatzitako borradorea:  
 «Irten ezazu. Cantico de Navidad. Conde de Peñaflorida».
- Azkoitia. Manuel Larrañagaren kopia. 1962.  
 «Elenco de cánticos religiosos», 10 or.  
 Ahots bat eta organuaren laguntza.

### Aita gurea

- Donostia. Koruko Ama Birkiñaren Basilika  
 2 particelletan egindako kopia, bata «Soprano-Alto»arentzat, eta bestea «Tenor-Bajo»arentzat. Aita gurea eta Ave Maria besterik ez dute 2 f.21x27. sol tx.
- Lekaroz. A. Donostiaren Artxiboa,  
 Partitura orokorra, bi pentagrametan. 2f. 32x21.5 am. sol tx.  
 Aita gurea, Eman iguzu («Eriyak»), Agur Maria eta Santa Maria («Eriyak»).

- Erreteria. Eresbil Artxiboa (Bergararik etorria)  
Partitura orokorra, bi pentagrametan: Tiple, Tenor I, Tenor II, Baxu  
f. 21,5x31 zm bi aldetatik idatzia. sol tx.  
Zati hauek ditu: Aita gurea, Emaiguzu («Pueblo»), Ave Maria, Santa Ma-  
ria (ahots 1), Gloria, Sicut erat (ahots 1), Kyrie, Kyrie (ahots 1), Sancta  
Maria, Ora pro nobis («Pueblo»).
- Erreteria. Eresbil Artxiboa (Bergararik etorria)  
Partitura orokorra, bi pentagrametan. Df 1, 21x31,5 (Yrten ezazurekin  
batera).  
XIX mendeko kopia, sol m.  
Tiple, Tenore eta baxuentzat idatzia.  
Zati hauek ditu: Aita gurea, Ave Maria
- Azkoitia. Manuel Larrañagaren kopia. 1962  
«Elenco de Cánticos religiosos» bilduma, 11 or.  
Partitura orokorra, 2 pentagrametan. Azkeneko Kyrieak ez beste osorik  
dago.
- Sopuerta (Bizkaia). Atxaxpe Koroa  
«Aita gurea del Conde de Peñafiorida con arreglos de «Urtxegi»  
f. 1. 1981 urteko kopia.  
Zati hauek ditu: Aita gurea, Emaiguzu (ahots 1), Agur Maria, Santa Ma-  
ria (ahots 1), Gloria, Sicut erat (ahots 1), Gloria  
«Urtxegi», Sopuertako Atxaxpe koroko zuzendaria den Fernando Agua-  
dok erabiltzen duen izenordea da.

### **Via crucis - Gurutz Bidea**

- Azkoitia. Iraurgi Koroa  
Lau ahotsetara egindako kopiak. Zati polifonikoak besterik ez dira azalt-  
zen
- Erreteria. Eresbil Artxiboa  
«Repertorio azcoitiano de Música religiosa», 27-28 or. :  
«Via crucis (Estaciones del 1 al 12). Transcripción a 4 voces de José Izurra-  
tegui».
- Azkoitia. Manuel Larrañaga kopia. 1962.  
«Elenco de cánticos religiosos» bilduma, 12-13 or.:  
«Gurutze Bidea», lau ahotsetara, bi pentagrametan.

### **Cántico de Zacarías, edo Benedictus**

- Azkoitia. Iraurui Koroa  
Gaurko kopia. 2 particella, «Soprano y Contraltos», eta «Tenores y Ba-  
jos»
- Erreteria. Eresbil Artxiboa  
«Repertorio azcoitiano de Música religiosa», Jose Izurrateguiren kopia.  
Partitura orokorra, lau pentagrametan idatzia.

- Lekaroz. Aita Donostiaren Artxiboa  
«Benedictus», Partitura orokorra, lau pentagrametan idatzia. Fa N.
- Azkoitia. Manuel Larrañaga kopia. 1962  
«Elenco de cánticos religiosos» bilduma, 65 or. :  
«Benedictus», partitura orokorra, lau pentagrametan idatzia.

### Jesu

- Bergara. San Pedro Parrokia  
«Jesu a 4 voces», artxibo musikalaren aurkibide batean «atribuido al Conde de Peñafiorida» bezala azaltzen da.  
Multikopiaz egindako particellak, bat ahots bakoitzeko.
- Antzuola. Parrokia  
«Via crucis», egilearen izenik gabe.  
Lau ahotsetako particellak.

### Miserere

- Arantzazu. Musikako artxibo berria. A-65 sig.  
«Miserere a 4 voces mixtas atribuydo al Excmo. Sr. Conde de Peñafiorida»  
f. 1,4 ahotsetarako, bi pentagrametan idatzia.
- Azkoitia. J.I. Uria jaunaren Liburutegia  
«Bajo». f.1, egilearen izenik ez da azaltzen. XVIIIg. mendeko kopia.  
Aurreko partituraren baxuarekin bat dator.
- Azkoitia. Manuel Larrañaga kopia. 1962  
«Elenco de cánticos religiosos» bilduma, 13-15 or.  
4 ahots bi pentagrametan idatziak.
- Lekaroz. Aita Donostiaren Artxiboa  
«Miserere llamado de D. a 4 voces atribuido a Peñafiorida».  
Partitura orokorra, lau pentagrametan idatzia, klabe zaharretan. Aita Donostiaren kopia. Beste aurreko Miserereekin konparatuz, desberdina da.

### Tonadillak

- Errenteria. Eresbil Artxiboa.  
«Copia de las tonadillas que compuso Don Javier M.<sup>a</sup> de / Munive é Ydiaquez, Conde de Peñafiorida, para la boda / de Don Pedro Valentin de Murgártegui y de la Hormaza / con D.<sup>a</sup> Javiera Fausta de Elio y Alducin. / Año de 1762»  
Ei. Koad. (10 f .21x31), zenbakiekin. XIX mendeko kopia.  
1 or.: /«*Celebremos alegres con bulla...*»/. Do lg. / Do lg. / Baxua Fa 4g.  
7 or. : «Tonadilla 2.<sup>a</sup> de los dos Zagales de Aspilza» / «*En busca de mi zagal...*»/ Do 3g. / Do 3g. / Baxua Fa 4g.  
Baxuak ez du zifrarik. Erru nahiko ditu kopiak.

- Azkoitia, J.I. Uria jaunaren Liburutegia  
«Tonadyllas à Duo / Con Vyolynes y Bajo / Echas para las Bodas de D.<sup>n</sup> / Pedro Valentyn de Mugarte/guy, con my S.<sup>ra</sup> D.<sup>a</sup> Xav.<sup>ra</sup>. de Elyo. / Por el Señor Conde de / Peñafiorida / Año de 1762».  
[Basterretan:] «De la Casa - de Uria». [Behean:] «Azcoitia».  
Ei. Kuad. (13 or.). Kopia XVIII mendekoa izan liteke.  
Beste eskuizkribuko tonadilla berberak dira. Hemen ere erruak ageri dira. Ahots eta baxuaren ezaugarriak berberak dira.  
Beste kopia bat ere gordetzen da liburutegi honetan, 2g. tonadillaren bukaerako erozo zati bar delarik.

#### «Adiyo Probintziya» Zortzikoa

- DONOSTIA, A. Jose Antonio  
«Notas de Musicologia Vasca. Dos zorzicos del siglo XVIII en 5/8».  
*Txistulari.*- Bilbo, 5 z., 1928,8-11 or.  
Berez, partitura faksimil erara azaltzen da, 1813 Parisen N. Paz-ek egindako argitarapenetik hartuta.
- DONOSTIA, J.A.  
Notas de Musicologia Vasca: Dos Zorcicos del siglo XVIII en 5/8 / P. José Antonio de Donostia.- San Sebastián: /Sociedad de Estudios Vascos - Eusko Ikaskuntza/, 1928. - 15 or.: il. - Separata. Revista Internacional de los Estudios Vascos. 22 urtea. XIX t. 3 z.

#### Cancion del vino (R.S.B.A.P. ren ingurukoa)

- RIEZU, P. Jorge de  
«Material folklórico de la Collectanea Lingüística de Humboldt. Canción del Vino». - *Boletín de la Institución «Sancho el Sabio»*.- Vitoria, XV urtea, XV t., 1971, 91-115 or.- Bibliografía  
Lau pentagrametan Aita Jorgerek egindako transkripzioa azaltzen da: Tiple 1.º /Tiple 2.º / Contralto / Bajo.

## 9. PENAFLORIDAREN MUSIKA LANEN IRAUPENA. IRITZI ZABALA

Kontearen musika lanak eta eginkizunak ikusi ondoren laburpen antzeko iritzi zabal edo orokor bat egitea legokioke lan honi. Hala ere, erabateko baliatzen bat egiteko goizegi dela pentsatzen dugu. Lan honetan egin nahi izan duguna hauxe izan da: egun gaia nola dagoen aztertu, argitaraturik dauden datoak bildu eta beste dato berrien laguntzaz, gaiaren nolabaiteko sailkapena eta argitarapena planteatu. Baina lana ez da hemen bukatzen, bada-kigu oraindik ere artxibo eta dokumentoen hondoak aztertzeaz daudela, Pe-



ñafloridaren inguruko dato berri asko izango dutelarik. Horiek ikusi arte ezin dugu ezer guztiz erabatekorik esan. Dударik gabe, gainera, ikuspegi orokor asko falta da: eraginak, erlazioak, e.a.

Guztiarekin ere, zenbait alderdi txikitan gure hipotesiak ezarri ditugu. Orokorki bada ere, aurrera dezakegu zenbait hipotesi Peñafloridaren musika lanaz, hipotesi hoiek, geratzen zaigun lanaren orientabide gerta daitezzen.

Lehenengoa, zenbatetarainokoak dira Peñafloridaren partiturak eta zenbatetaraino zabaldu dira? Lehenengo galderari buruz, eta kontu haundiz, Emilio Palaciosek obra literarioaz ematen duen iritziaren aldeko garelara esan dezakegu:

«El Conde de Peñafiorida no pasó de una ligera medianía en el campo de la literatura, mientras que sobresalió en otros, y sobre todo por su capacidad organizadora. Pero estas piezas quedan como muestra de su ingenio y de la labor universal a la que eran dados los hombres de la Ilustración. Sin duda que hicieron la delicia de los círculos allegados a él, pero hoy sólo nos quedan como restos a los que la historia rinde su tributo» (102).

Ez dezakegu inolako mugarik gabe, bere garaiko musikagileen lanarekin konpara Kontearena. Ez dirudi bere obrak eragin musikalik izan duenik ondorengo konposagileen artean. Baina ez dugu uste bere obra plano honetan azter daitekeenik. Bera ez bait zen musikagilea, musikazalea baizik. Eta alderdi honetatik badute bere konposaketek, inolaz ere baztergarri ez den balio bat.

Bere musikaren zabaltasuna da planteatzen dezakegun beste gai bat. Honi buruz, 1966. urtean honako hau idatzi zuen Joaquín Iriartek:

«El repertorio muniviano en Azcoitia es considerable, sobre todo en la educación musical que supo imprimir a la población y que pervive todavía. (En Vergara se nota el mismo fenómeno de melomanía en él heredada). Desde los días del Conde, Azcoitia es patria de artistas y literatos» (103).

Herri hauei musikazaletasuna Munibegandik datorkiela gehiegi esatea litzateke, baina egia da Muniberen obra bi herri horietan batez ere gorde eta abestua izan dela. Hauei beste bi leku erantsi behar zaizkie: Markina eta Arantzazuko Santutegia. Bidezkoa da Peñafloridak maiz bisitatu zituen lekuak bere obra gordetzen lehenengoak izatea. Ez dira bakarrik ordea. Eibar, Oinati, Urretxu, Biasteri, eta Donostian bere obrak egoteak zerbait gehiago adierazten digu: Kontearen obrak nolabaiteko zabalkuntza izan duela, Gipuzkoako esparruan batez ere.

Konposaketan baino gehiago, beste alderdi musikaletan Peñafloridak egin zuen lanak, Euskal Herriarentzat askoz garrantzi handiagoa duela esango genuke. Orain arte ditugun dato soilez, argi esan dezakegu Peñafloridaren

102.- PALACIOS, Emilio. «Actividad literaria...», op.cit., 529-530 or.

103.- IRIARTE, Joaquín. «Javier Maria Munive e Idiáquez. Conde de Peñafiorida», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* delakoan. Donostia, XXII, 2g. koad., 1966, 207 or.

ridaren alderdi nagusiena musika arloan, «animadore» edo bultzatzaile bezala egindako lana dela. Gure ustez, Peñaflorida eta bera bezalako beste lagun batzuei esker ezagutu zituen Euskal Herriak, Europear aurrerabide musikalak XVIII. mendeko bigarren zatian. Haiei eskerrak eta Peñaflorida gidari bezela azaltzen delarik, aurreratu ziren Euskal Herrian bai teoria musikala, bai praktika edo musika-heziketa. Euskal Herriko Adiskideen Elkartek musikarekiko zuen arreta neurri handi batean Peñafloridari esker dela aitortu beharra dago.

Askotan egin ohi da honelako galdera: noraino izan zen amets bat Adiskideen Elkartearen ekintza? Goizegi da honi erantzuteko, musika arloan behinik behin, baina argi dago Peñafloridaren obrak oraindik entzuten badira, herriarengan oihartzuna izan zutelako dela, eta hori aztertu beharko dugu.

Eta azkenean, Peñafloridari zor diogu, gaur errentabilitate hitza hainbestetan entzuten denez, Musika, Artea izatez gain, «utila», baliagarria izan zedin, nahia eta asmoa planteatzea gutxienez.

Kontek Elkartez hitzegiterakoan eta Aita Andresen hitz batzuk erdutat hartzen dituela aipatzean egiten dituen gogoetaz amaiera emango diogu guk ere hitzaldi honi:

«...pondré con él [Frantzian antolatutako kontzertu batzuen gorespena] el sello a mi Discurso; porque me parece un trozo muy propio de su asunto, porque también quiero aprovecharme de esta ocasión de rendir mi homenaje a este divino Arte [Musika] a quien he debido tan dulces ratos en mi vida, y porque, en fin, sepa el Mundo al ver en él vuestro retrato (pues que ciertamente parece hecho es-profeso) que ni aun en las diversiones se olvida nuestra Sociedad de aquel amor a lo bueno y a lo útil que es el alma de su instituto» (104).

---

104.- PEÑAFLORIDA, Conde de. *Crítica...*, op.cit., 45-46 f.

## RESUMEN

*Balance de los datos conocidos hasta el presente acerca de la faceta musical de Xavier M.<sup>a</sup> de Munibe e Idiaquez (1749-1785), redondeados por nuevos datos extraídos de la investigación sobre la música en la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, en curso.*

*Se repasa someramente la música en Euskal Herria cuando nace el Conde. Su educación musical. Sus actividades y relaciones musicales, con Aránzazu, Bilbao y Madrid. La presencia de la música a través suyo en la R.S.B.A.P. Su preocupación por la educación así como su figura como intérprete y compositor. Además del inventario de sus obras, se añade una opinión global de su personalidad musical.*

## SUMMARY

*Balance of hitherto known data about the musical aspect of Xavier M.<sup>a</sup> de Munibe e Idiaquez (1749-1785), rounded off by new data extracted from the research on music which is being carried out at the «Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País».*

*The music in Euskal Herria at the time of the Count's birth, is superficially reviewed. His musical education. His activities and musical relationships with Aránzazu, Bilbao and Madrid. The presence of music in the R.S.B.A.P., through to him. His interest in education, as well as his personality as interpreter and composer. Besides an inventory of his work, a general opinion on his musical personality is also given.*